

EUSKAL AEko TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA (BMIT). 2010eko 3. hiruhilekoa

Euskal AEko txikizkako sektorearen salmentak %1,4 murriztu ziren 2010eko hirugarren hiruhilekoan

Gasolindegia sartu gabe, salmentak %2,3 murriztu ziren

Eustatek emandako datuen arabera, 2010eko hirugarren hiruhilekoan, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean salmenta nominalak %1,4 murriztu ziren, aurreko ekitaldiko hiruhileko berdinen aldean.

Salmentak, gasolindegia sartu gabe, %2,3 murriztu ziren aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Aurreko hiruhilekoaren aldean salmenta-indizea %0,9 nominala murriztu da, urtaro-eraginak kenduta.

1. taula. Urte arteko Hazkunde-tasak Euskal AEko txikizkako merkataritza. Egutegi-eragin zuzendua daukaten datuak

Urtea	Hiruhilekoa	Euskal AE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
2009	I	-9,6	-14,0	-8,0	-9,9
	II	-6,3	-10,3	-5,3	-5,9
	III	-4,3	-8,8	-5,3	-0,8
	IV	-2,5	-3,6	-2,3	-2,2
2010	I	5,3	3,4	5,0	6,6
	II	1,6	1,8	0,4	3,4
	III	-1,4	-0,6	-1,3	-2,0

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko txikizkako Barne Merkataritzaren Indizea

Sektoreka, txikizkako merkataritza espezializatuan %1,5 jaitsi dira salmenta nominalak 2010eko hirugarren hiruhilekoan, eta espezializatu gabeen %1,7 murriztu dira 2009ko aldi beraren aldean.

Txikizkako espezializatuan Elikaduraren sektorea nabarmentzen da: %0,5eko hazkunde nominala. Etxeko ekipamenduaren salmentak %2,9 jaitsi dira; Pertsonaren ekipamenduarenak %1,2 eta Kontsumoko beste ondasunarenak %0,1.

2010eko hirugarren hiruhilekoan txikizkako sektoreko salmenta nominalak %2,0 murriztu dira Gipuzkoan urte artean; Bizkaian %1,3 eta Araban %0,6.

Prezio finkoetan, alegia, prezioen eraginik gabe, txikizkako merkataritzaren salmentak %3,2 murriztu dira hirugarren hiruhilekoan

Txikizkako salmentak -gasolindegia sartu gabe- %2,6 jaitsi dira aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

2010eko hirugarren hiruhilekoan Euskal AEko txikizkako merkataritzaren salmenta errealetan %1,3ko jaitsiera dago bigarren hiruhilekoaren aldean eta urtaro-eraginak kenduta.

Txikizkako merkataritza espezializatuaren jaitsiera errealak %2,9 da, eta ez-espezializatuan %2,7koa, 2009ko hiruhileko beraren aldean.

Txikizkako merkataritza espezializatuan urte artekoa negatiboa izan da sektore guztietan. Kontsumoko beste ondasunetan %6,5eko jaitsiera, Elikagaien salmentetan %1,4koa; Etxearen ekipamenduan %1,1koa eta Pertsonaren ekipamenduan %0,1koa, beti termino errealetan.

Txikizkako ez-espezializatuan, euro finkoetan, elikagaiak nagusi direnetan %2,2ko jaitsiera dago eta %5,8koa gainerako produktuak nagusi direnetan.

Hiru lurraldeetan emaitza negatiboak daude termino errealetan. Gipuzkoan %3,9 jaitsi da, Araban %3,5 eta Bizkaian %2,6.

Euskal AE osoan, aurreko hiruhilekoaren aldean, txikizkako merkataritzako sektorean landunen kopurua %0,7 jaitsi da 2010eko hirugarren hiruhilekoan.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Txikizkako Merkataritzaren Indizearen gaineko datu-bankua